

MINTZAMENA



Ekintza komunikatiboa: Azokako saltoki batean, hitz eta esapide sinpleak erabiliz, larunbateroko erosketa egitea.

Azokan

Saltzailea: Egun on. Zer nahi duzu?

Eroslea: Bada, hasteko, baserriko ogi bat.

Saltzailea: Zein motatakoa? Gariz egindakoa edo zekaleduna?

Eroslea: Aiba! Zer da zekalea?

Saltzailea: Gariaren familiako zereal bat; irina egiteko erabiltzen da.

Eroslea: Zekaleduna hartuko dut. Eta babarruna, zenbatean daukazu?

Saltzailea: Tolosakoa, 12 euroan kilo; Arabako pintoa, 7 euroan.

Eroslea: Bada... emadazu Arabakoa. Bi kilo, mesedez.

Saltzailea: Ederki. 14 euro babarrunetan eta 3 euro ogitan... 17 euro, guztira.

Eroslea: Tori, justu daukat. Hurrengora arte.

Saltzailea: Eskerrik asko eta nahi duzun arte, bai!